



GUTXITZEKOAK DIREN LANPOSTUAK

EZABATZEA • Gutxitzekoa den lanpostu batek eragiten dien pertsonak erabil dezaketen eskubidea. Hautazkoa da eta ez du inor behartzen. • Lekualdatze-Lehiaketa garaian ezabatze eskubidea eskatzeko aukera ematen bada eta ikastetxe bereko hainbat pertsonak erabili nahi badute, lehentasuna izanen du ikastetxe horretan aintzintasun handiagoa duenak. • Norbaitek ezabatze eskubidea erabiltzen duen momentuan, behin-behineko egoeran egotera pasatzen da. Beherago azaltzen ditugun eskubideetako bat erabili ondoren ez badiote lanpostu finkorik ematen, berriz ere behin-behineko eran geldituko da (behin-betikoa balitz bezala puntuatuko zaio). Eskubide hauetakoren bat erabili ezean, derrigorrezko lanpostua eman diezaiokete.

EZABATZEA ESKATZEN DUEN PERTSONAREN ESKUBIDEAK (Hauetako bat erabiltzera behartzen da)

Ikastetxean lehentasunezko eskubidea. Eskubide hau erabiliz gero, ikastetxean bertan lanpostua aukeratzeko lehentasun osoa izanen da (dituen espezialitate guztien artean eta nahi bezala erabiliz, hala nahiko balu). Gogoratu kasu honetan ohiko lekualdatze-lehiaketaren bidez ere parte har daitekeela dokumentu berean, horrela bi aukera agortuz.

Herrian edo zonaldean lehentasunezko eskubidea Honako kasu bi hauetan, partehartzaileari behartzen zaio dituen habilitazio guztiak erabiliz eta herri edo zonalde horretako ikastetxe guztiak jarriz parte hartzera, hala egiten ez badu derrigorrezko lanpostu bat eman diezaioketela argi utziz. Herri berean parte hartzea derrigorrezkoa da, ez ordea zonaldean.

Horretarako dagoen garaian gutxitzea eskatu ezean, eta geroago Administrazioak lanpostu hori ezabatzea erabakitzen badu, gertatzen denean arautuko dira pertsona horrek izan ditzakeen eskubideak (hasiera batean hemen azaltzen ditugunen antzekoak izango lirateke, baina ezin dezakegu baieztatu).

Gutxitzea eskatu ezean ere, gogoratu behar da pertsona horri ez zaiola lekualdatze-lehiaketan parte hartzera behartzen, eta Ekitaldi Publikoan lanpostua hartzera pasatuko litzatekeela lan karga faltagatik zerbitzu eginkizunetan. (Osasunagatik zerbitzu eginkizunetan daudenen ondotik aukeratuko lukete, eta beste guztien aurretik).

eskaera egiteko epea 5 egun balioudun dira